



AIETEKO ANBULATORIOA KOKATUKO DEN LURSAILEN TITULARTASUNA ESKURATU DU UDALAK

Donostiako Udalak Aiete auzoko bi lursailen titulartasuna eskuratu du, eta aurreikusten da lursail horietan Aiete auzorako ambulatorio berria kokatuko dela epe ertainean.

Enrique Ramos Hirigintza arloko zinegotzi ordezkariak adierazi du Gobernu Batzordeak datorren astean onartuko duen akordioak itxiko duela lursail horien jabetzari buruzko kapitulua. Hain zuzen, lursail horiek guneta hauetan daude: Pío Baroja pasealekua 55-57 eta Aiete pasealekua 41-43. Orain, Udalaren jabetzakoak dira osorik, eta, beraz, Osakidetza esku utzi ahal izango ditu ambulatorioa eraikitzeko.

Irailaren 17an hasi zen bi lursailak erregularizatzeko eta erregistroan izena emateko espedientea, eta gaiak eragin diezaiekeenei jakinarazi zitzaizkien prozesu horri ekin zitzaizkion. "Ez da alegaziorik jaso, eta, beraz, lursail horien udal jabetza erregulatzeari ekin zaio orain" adierazi du Enrique Ramosek. Hurrengo urratsa izango da lursailak Osakidetza esku uztea ambulatorioa eraikitzeko eta lursail horien kalifikazioa aldatzeko (bideen arloko komunitate ekipamenduaren arlokora).

Anbulatorio berriaren lursailen kokapena Aieteko bizilagunei euri galdetuta adostu zen, eta prozesuan, berau kokatzeko beste leku batzuk baztertu ziren. Udalak aurreikusten du 1.500 metro karratuko eraikigarritasuna dagoela sestra gainean, eta beste 1.000 metro karratu gehiagokoa bi solairutan (sotoa eta erdisotoa). Osakidetzak, bestalde, aurrerapenak egin ditu ambulatioaren plan funtzionalean; aurreikusten du ez dituela bi garaiera baino gehiago izango, eta adierazi du Eusko Jaurlaritzaren 2016ko ekitaldiko aurrekontu partida bat eskuratu dezakeela.